



HARRIAREN AITZAKIAN, FESTA ETZI BEDAION

XIX. mendean, 2 urtez jarraian harria bota eta uzta txikitu zuen; gertakari hura gogoan, Harri Jaia ospatzen dute »4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-05-06

VIURTEA 1.426.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



'Mozio etikoa' eztabaidatuko dute biharko osoko bilkuran

VILLABONA 20:00etan izango da; hautetsi independentistek euren mozioa aurkeztuko dute »3



Goian, jendea ibilbideetako bat egiten. Behean, Adaggio laukoteak kontzertua eskaini zuen unea Karrapean. N.GARZIA



Buruhandien aurretik korrika aritu ziren gaztetxoak. A. IMAZ

XVIII. Kultur Asteari hasiera eman diote suziriarekin

BERROBI Atzo Punttu Txapelketa eta buruhandiak, eta gaur, pilota eta sukaldaritza »6

JENDE UGARI ETA GIRO POLITA NATUR BIDEEN EGUNEAN

LEITZA 450 lagunek eman zuten izena herenegungo ibilbideetan parte hartzeko; antolatzaileak «hagitz pozik» azaldu dira »7

Hiru360
Zurekin eta Zurekin
Hirurekin eta Gurekin
Gurekin eta Zurekin
eta gurekin...
Hiru360 (Hiru360)

Beste hainbat udalerritan aurkeztutako 'mozio etikoa' eztabaidatuko dute bihar



Villabonako Udalbatza, aurtengo aurrekontuak bozkatu zituzteneko osoko bilkuran. I. GARCIA

Villabona » Hautetsi independentistek euren mozioa aurkeztuko dute, bihar 20:00etan izango den osoko bilkuran.

IMANOL GARCIA

Villabonako udaltxean bihar egingo den osoko bilkuran, bi mozio eztabaidatuko dituzte. Alde batetik, EAJk eta PSE-EEK beste hainbat udalerritan aurkeztutako *mozio etikoa* eta, bestetik, horren aurrean hautetsi independentistek aurkeztuko duten mozioa. Udala duen EAE-ANVk sei zinegotzi ditu, EAJk bost zinegotzi, horietako bat independentientea, PSE-EEK zinegotzi bat eta EB-Aralar koalizioak beste bat.

Arrasaten gertatutako Isaias Carrascoren hilketaren ondoren, EAJ eta PSE-EEK adostutako *mozio etikoa*, besteak beste, «indarkeria gaitzesten ez duten alkate edo zinegotzien» dimisioa aurkeztera deitzen zaie. PSE-EEren zinegotzia den Iñaki Uriberi «atseka-bea» sortzen dio «EAJren zinegotzi batek eta Ezker Batuko zinegotziak abstenitu behar dutela jakitea». Horren ondorioz, «ardurak» eskatu dizkio EAJren eta Ezker Batuaren zuzendaritzari. «Ulertezina da hainbeste erreserba eta kimen falta izatea oinarriko balore demokratikoak bultzatzeko». Uribek gaineratu duenez, «indarkeriaren aurrean ezin da hiltzerdika aritu, demokratekin zaude ala hiltzaileekin zaude, eta hauei babesten dietenek ezin dute instituzioetan egon».

EAJtik Bakartxo Tejeriak Uriberierantzun dio «bakoitzak bere etxeko gauzak konpondu» behar dituela esanez. Zinegotzi independentientea abstenituko den «ez dakitela» zehaztu du Tejeriak. Bestalde, Ezker Batua alderditik azaldu dutenez, «Mari Jose Sanchez zinegotziak osoko bilkura hasi arte ez du ezer adieraziko». EBren udal asanbladek eskumena dute horrelako gaietan erabakitzeke, baina zuzendaritzatik garbi utzi dute mozioa babestea dela ildo.

«Esperotakoa»

Ezker abertzaletik espero zuten EAJk eta PSE-EEK beste udalerritan bezala Villabonan ere aurkeztuko zutela mozioa. Josune Arretxe hautetsi independentistak azaldu duenez «gaizki iruditzen zaigu mozio hori aurkeztea, EAJk ezker abertzaleari bizkarra ematen dion bakoitzean bezala. PSOEtik espero daiteke, baina EAJk berdina egitea penagarria da».

Hautetsi independentistek beste mozio bat aurkeztuko dute. Bertan, besteak beste, «dimisio eskakerak eta zentsura mozioak eta halaber ezker abertzalea isolatzeko estrategia oro antzua delagatazkarren konponbidera heltzeko» diote. Ezker abertzalearen ustez, «gatatzeko politikoa konpontzeko gakoa autodeterminazioaren eta lurraldetasunaren korapiloa askatzea da». Horrez gain, hautetsi independentistek mozioan azaltzen dutenez, «udal honek uste du Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea dutela eta hori lehenbailehen eman dadin urra-

tsak eman behar direla». «Españiak nahiz Frantziak Euskal Herriak erabaki duena errespetatu behar dutela» gaineratzen dute.

Mozioan dioenez, «udal honek bere eskuetan dagoen guztia egingo du euskal gizarteak eskatzen duen eta nahi duen benetako aldaketa politikara gauza dadin». Azken puntuan dioenez, «udal honek bere egiten du proiektu politiko guztiek duten berdintasunean lehiatzeko eskubidearen aitortzen eta hori bermatzeko bere eskuan dauden bitartekoak jarriko ditu».

Uriberen kritika Udalari

PSE-EEren zinegotzia Udala osatzen duen EAE-ANVren aurka azaldu da. «Osasun demokratikoa arengatik eta etika politikoa gatik ezin dutela instituzioa bat, kasu honetan udal bat, zuzendu ez direnak gaibabesik gabeko gizon baten hilketa ez bakarrik gaitzesteko, ezta gizon horren familiaren saminarean aurrean hunkitzeko ere».

Uribek gaineratu duenez, «ez dugu nahi izotzeko bihotza duten alkaterik, ezta politikari koldarririk ere. Beldurraren aurka borrokatuko duten gizon eta emakumeak behar ditugu». Zinegotzi sozialistak dio «ulertezina» iruditzen zaio «ETAren hilketa basatien aurrean, EAE-ANVren udal gobernuaren aldetik erreakzioirik ez izatea, ezta gaitzestea ere». Ez du ulertzen «garondan tiro ematearen eta bonben aurrean, Euskadiko kaleetan ezer gertatu ez balitz bezala udalaren egunerokotasunarekin jarraitu nahi izatea». Uribek dioenez, «jarraera horrekin demokrata bezala iraintzen gaitu».



Andatza Eguna eta ipuin kontaketa

ZIZURKIL » Maiatza Saltsan! martxan jarri da dagoeneko. Herenegun Andatza Eguna ospatu zuten zizurkildarrek eta usurbildarrek. Jende asko joan zen bertara, eguraldi aproposa zegoela aprobetxatuz. Bestetik, atzo, Hernandorena Ipuin Lehiaketako liburuaren aurkezpena egin zuten. Maite Frankok zizurkildarren ipuin saridunak kontatu zituen. I. GARCIA



Mikel Olaetxea buruz burukoan

TOLOSA » Mikel Olaetxea litzartzarrak atzo jokatu zuen Beotibar pilotalekuan Bigarren Mailako buruz buruko final-laurdena Iñaki Larralderen aurka. Erredakzioa ixtaroko partida amaitzeko zegoen. Olaetxeak irabaziz gero, Urrizelkiren kontra jokatu du hurrengoan. NEREAURBIZU

Laburrak

Sanisidrotako argazki rallya antolatuko dute

ALKIZA » Sanisidrotan egingo den argazki rallyan parte hartu nahi duten herritarrek izena eman behar dute horretarako herriko hiru tabernatan jarrita dauden zerrendetan. Hamabi urte bitartekoek 6 euro ordaindu beharko dute, eta hortik gorakoek 12 euro. Egundorietan ateratako argazkiak gero San Joan su egunean ikusgai egongo dira Kultur Etxeko Erabilera antizteko gelan, ikusi nahi duen guztiarentzat.

Festetako peoiak eta kale garbitzaileak behar dira

ANOETA » Herriko festetan kalea garbitzeko eta peoi lanak egiteko deialdia egin du Udalak. Festak hileren 21etik 25era izango dira. Aurreko asteburuan ere (hileren 17a eta 18a) hainbat ekimen antolatuko dira. Baldintzak 18 urtetik gorakoa izatea eta euskara jakitea izango dira eta baloratuko da Anoetan erroldatua izatea. Interesatuak izena eman beharko dute udalarekin, ikusi nahi duen guztiarentzat, hileren 9a baino lehen.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

ALOKAIRUA

■ **Baserria.** Baserria hartuko genu-

ke errentan bi lagunek. Deitu 656 70 38 14 zenbakira.

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsoa behar dugu. Deitu 685 22 70 58 zenbakira.



Berrobiko Kultur Astearen lehen egunean, haurrak izan ziren protagonista, buruhandiekin batera. ASIER IMAZ

Kultur Astearen XVIII. edizioa buruhandi eta suziriekin jarri dute martxan

Berrobi » Atzo hasi eta igandean amaituko den Kultur Astearen adin ezberdinetako jendeak parte hartuko du.

Arratsalde amaieran, Solastokian Igo Puntu Txapelketa jokatu zuten. Bestalde, gaur pilota eta sukaldaritzak hartuko dute lehen eguneko ekitaldien lekukoa Berrobin.

Gaur, pilota eta sukaldaritzak Urreburuko gaztetxoekin pilota partiduak jokatu dituzte gaur 17:00etan. Ondoren, 18:15ean, Felix Garridoren eskutik sukaldaritzak erakusketa egongo da.

ASIER IMAZ

XVIII. Kultur Astea atzo hasi zen Berrobin. 7 egunetako ekitaldi ugari egongo dira herriko hainbat txokotan eta adin guztietako jendearentzat zuzendu dituzte ekimenak. Herriko talde eta elkarte ezberdinek antolatutako Kultur Asteari igande honetan emango zaio amaiera.

Atzo, lehen eguna

Suziri eta buruhandiek eman zioten XVIII. Kultur Asteari hasiera 17:00etan. Txikien korrikaldi eta algaren ondoren, euskaldantza emanaldia ikusteko aukera egon zen atzo Berrobin, herriko haurren eskutik.

» EGITARAUA

Maiatzak 6, gaur

■ **17:00etan.** Urreburuko gaztetxoekin pilota partiduak.

■ **18:15ean.** Sukaldaritzak erakusketa Felix Garrido sukaldariarekin, Bide-Ona Elkartearen. Erakusketa platerak zozketatu egingo dira eta haurtzaindegi zerbitzua egongo da Etxolan.

Maiatzak 7, bihar

■ **17:45ean.** Belabieta gimnastika erritmiko taldearen emanaldia frontoian.

■ **18:30ean.** Sukaldaritzak erakusketa Felix Garrido sukaldariarekin, Bide-Ona Elkartearen. Erakusketa

platerak zozketatu egingo dira eta haurtzaindegi zerbitzua egongo da Etxolan.

Maiatzak 8, etzi

■ **17:00etan.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria Galtzaundiren eskutik liburutegian.

■ **18:00etan.** I. Eskoba txapelketa Solastokian.

Maiatzak 9, ostirala

■ **17:30ean.** Ikastetxearen eskolako ikasleen emanaldia.

■ **Ondoren.** Literatur lehiaketako sari banaketa.

Maiatzak 10, larunbata

■ **09:00etan.** 2 orduko mendi martxa haur eta helduentzat.

■ **16:00etan.** Mus txapelketa Solastokian.

■ **18:30ean.** Toka txapelketa Solastoki aurrean.

■ **22:00etan.** Angel Magoaren eskutik magia saioa familia guztientzat Solastokian, euskaraz eta erderaz.

Maiatzak 11, igandea

■ **12:00etan.** Txakoli dastaketa Udaletxe aurrean.

■ **18:00etan.** Mendeko Musika emanaldia Solastokian.



Hanken gainean haur eta helduak

BERASTEGI » XVI. Ibilbide Neurtua zortzi orduren inguruan egin zuten herenegun mendizale gehienek, nahiz eta goiko irudiko bi beasaindarrak lau ordu nahikoak izan. Helduek gain haur eta gurasoek euren ibilbidea egin zuten. Bertan 67 haur irten ziren Berastegiko plazatik eta San Lorentzotik itzulia egin ostean, herrira itzuli ziren, diploma eta guzti. HITZA

Laburrak

Festa Batzordearen batzarra atzeratu egin da

IBARRA » Herriko hainbat elkarteak Festa Batzordearen bilkura atzeratu dadin eskatu dute. Batzordeburuak eskaera ontzat hartuta, festa Batzordearen bilkura etzira, maiatzak 8ra, atzeratzea erabaki du. Bilkura Udal Batzar aretoan izango da 19:30ean.

Lizarrara irteera maiatzaren 23an

IBARRA » Bizi Nahi Erretiratuen Elkarteak irteera antolatu du Lizarrara (Nafarroa) maiatzaren 23an. Izena emateko epea hilaren 12an zabalduko da eta bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkide ez direnek bi euro gehiago.

Upategietara irteera larunbat honetan

BELAUNTZA » Kultur Etxeak Errioxako upategiak ezagutzeko irteera antolatu da maiatzaren 10ean, larunbata. Upategi batean gosalduko dute lehenik, ondoren beste hiru ikusiko dituzte, 4. upategiaren bazkideko. Izena eman nahi duenak udaletxera edo tabernara joan beharko du.

Alergien inguruan hitzaldia maiatzaren 13an

GAZTELU » Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutxako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko hitzaldia egingo da maiatzaren 13an Herriko Elkartearen. Hitzaldia 17:30ean hasiko da eta eztabaidatuko den gai nagusia *Alergien munda* izango da.

Zeberio II.ak gaur jokatu du Galarretan

ELDUAIN » Patxi Zeberio gaur jokatu du Hernaniko (Gipuzkoa) Galarretan. Zeberio II.ak Agirrebala izango du atzelari eta Urrizana San Miguel arerio. Jaialdia 16:30ean hasiko da eta elduaindarraren partidua jaialdiko bigarrena izango da.

Behe Nafarroara mendi irteera Alpino Uzturretik

TOLOSA » Alpino Uzturre mendi elkarteak maiatzaren 11rako mendi irteera antolatu du. Behe Nafarroara joango dira, Iratiko Bagargi mendatean bukatu dutelarik txangoa. 8 orduko mendi martxa parte hartzeko, elkartearen eman beharko da izena, 943 652 789 telefonora deitu beharko da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Umeekin joan zirenek geltokitik mugara doan ibilbidea aukeratu zuten, txikienentzako egokia baita. N. GARZIA



Plaza ondoan dagoen garbilekura ez zen jende gehiegi hurbildu. N. GARZIA



Amalur pailazoekin umeek gozatu egin zuten eta hauek zozketaren irabazleen izenak eman zituzten. N. GARZIA



13:00etan Adaggio laukoteak kontzertua eskaini zuen karrapean. N. GARZIA

Natur Bideen Egunean, jende ugari

Aisia » Plazaola Partzuergotik «hagitz pozik» daudela adierazi dute eta herenegun Leitzan iaz baino jende gehiago bildu zela gehitu dute.

NAIARA GARZIA

Jende ugari bildu zen herenegun Leitzan ospatutako Natur Bideen Egunean, bai natur bidean bertan baita herriko plazan ere eta horregatik antolatzaileak «hagitz pozik» agertu dira.

Festa goizean goiz hasi zen eta

antolatzaileek jendea informatzeko eta hauek izena eman ahal izateko 3 informazio puntu prestatu zituzten. Plazaola Partzuergo Turistikoko kudeatzaile den Yolanda De Carlosek azaldu duenez, «jendea 09:00etarako jada zain zegoen, informazio guneak ireki baino

lehen». Antolatzaileen datuen arabera, 450 pertsona inguruk izena eman zuten ibilbideetan parte hartzeko, «joan den urtean baino gehiagok», dio De Carlosek.

Ondoren festak herriko plazan jarraitu zuen. Ibilbideetan parte hartu zutenei luntx bat eman zitzaion eta ondoren adin ezberdinetako jendearentzako ekitaldiak izan ziren. Umeek Amalur pailazoen emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten, eta hauek izan ziren Mendukiloko eta Behigorri parke-

ko edo jolaslekuko sarreren zozketaren irabazleak jakitera eman zituztenak.

Adaggio laukoteak ere, urteroz bezala, musika klasikoko kontzertu bat eskaini zuen karrapean eta jende ugari bildu zen haien inguruan.

Garbilekuan, proiektzioa

Aurten Natur Bideen Eguna Leitzan egin dutenez, «herriari ere protagonismoa» eman nahi ziotela adierazi du De Carlosek eta hori

dela eta garbilekuan ikus-entzuzko emanaldiak eskaintzea erabaki zuten partzuergoak eta Leitzako Udalak. «Aurrera begira elkargune bat izateko lehenengo urratsa litzateke».

Bertan 2 dokumental eskaini zituzten, bata herri kirolei buruzkoa eta bestea Plazaolari buruzkoa. Bakoitza 2 aldiz bota zuten arren, eta bertan fresko egiten zuten arren, ez zen aurrekisi zuten adina jende bildu, jendea batez ere plazan baitzegoen.

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

JUANA AGIRREZABALA ARTOLA

ANDREA

(Ramon Zubillagaren alarguna)

AMONA, hain maite izan zaitugun zure bilobak beti gogoan izango degu zure goxotasun, borondatea eta maitasuna gureganako.

Agur eta muxu handi bat Zure bilobak beti gogoan izango zaitugu.

Zure bilobak: Joseba, Gotzone eta Alberto, Iñaki eta Igone.



AMEZKETAN
2008ko maiatzaren 6an



19°
12°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. ESTALIA
BEROENA 20°
HOTZENA 12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur Asteak

■ **Berrobi.** XXIII. Kultur Astea: 17:00etan Urreburuko gaztetxoan pilota partidak; 18:15ean sukaldaritza erakustaldia eskainiko du Felix Garrido sukaldariak Bide Ona elkartearen. Eraskutaldian prestatzen diren platerak zozketatu egingo dira partehartzaileen artean.

Deialdiak

■ **Alkiza.** San Isidro eguneko afaria izango da 15ean Ostatu jatetxean. Udalak familia bakoitzetik bi pertsonari ordainduko die afaria, herrian errodaturata badaude. Beste norbaitek afaria joan nahiko balu 18 euro ordaindu beharko ditu. Izen-ematea, Ostatuan bertan.

■ **Anoeta.** Herriko festetako haur danborradan parte hartu nahi dutenek udaletxean edo ikastolan eman dezakete izena, maiatzaren 7a baino lehen.

■ **Anoeta.** Koadrilen Eguneko bazkaria eta afaria maiatzaren 17an egingo da frontoian. Izen-ematea, Itzuli edo Buztina tabernetan 7,5 eurotan.

■ **Belauntza.** Sanjoanek antolatzen bilerak Kultur Etxean 20:00etan.

■ **Berastegi.** San Isidro egunean eguerdian pilota partiduak, meza eta ondoren bazkaria izango da bertsoariekin Gaztainondo Jubilatuen Elkartean. Bazkarirako izena eman behar da bertan.

■ **Ibarra.** Festa Batzordearen bilera udal batzar aretoan 19:30ean San Bartolome jaiki prestatzeko.

■ **Tolosa.** Herri Urrats-erako autobus antolatuta ditu maiatzaren 11n. Izen-ematea Galtzaundiko egoitzan izango da (8:00-13:00etara eta 16:00-20:00etara)

■ **Tolosa.** San Joan jaiki antolatzen bilerak Kultur Etxean 19:00etan.

■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa udal musika eskolak aurrematrikula egiteko aukera zabaldu du egunero 10:00etatik 13:00etara.

■ **Tolosa.** Kontseiluaren 10. urtemuga atxikimendu bilketa eta bideo grabaketa Tolosako Kultur Etxean.

Irteerak

■ **Anoeta.** Alkartasuna jubilatuta biltokiak irteera antolatuta du Portugalera leteko zubia, Getxoko portua eta Guggenheim museoa bisitatzeko ekainaren 11n. Bazkaria Lur Gatika jatetxean izango da. Izen-ematea, biltokian 27 eurotan (bazkide ez direnek, 30 euro).

■ **Aiztondo.** Maiatzaren 17an eta 18an asteburu pasa antolatuta dute Lekunberrira. Bertako zuhaitzen eta tirolinen abentura parkera bisita egingo dute, piszinara, ibilal-

diak... Prezioa 50 euro da eta izena Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkileko liburuetan eman daiteke.

■ **Belauntza.** Kultur Etxeak Errioxako bodegak ezagutzeko irteera antolatuta du maiatzaren 10ean. Bodega batean gosaldia, Laguardian goiza pasa eta La Puebla de Labarcán 3 bodega ikusi ondoren 4. batean bazkaria. Izen-ematea, Kultur Etxean 28 eurotan.

■ **Tolosaldea.** Larramendi kultur bazkuna *Agoteen lurretan* txangoa antolatuta du larunbaterako: Baztan, Aldude, Santxotena museoa... Izen-ematea, 943 696450 telefono zenbakian edo *txangoak@topagunea.com*.

■ **Tolosaldea.** Villabona-Anoeta-Irura jubilatuen ibaldia larunbatean, 9:00etan Biltokitik abiatuta, Sacem zubia, Anoetako plaza, Irura, Laskibar, zubia eta amaiera Biltokian hamaiketakoarekin. Izen-ematea, Biltokiko bulegoan osteguna bitarte.

Kirolak

■ **Villabona.** Ordunte mendilerroa (Balmaseda) irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkartek igandera. Izen-ematea, elkartean bertan.

■ **Tolosa.** Beherobi-Irati (Beha-Nafarroa) mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturrek igandera. Errozate, Irua, Okabe, Mendibel, Art-

hanolatze eta Escalier mendiakigoz. Izen-ematea, elkartean bertan (943 652789 telefonoan).

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkartek Alpeetara eta Atlasera mendi irteera antolatuta nahi ditu abuztuaren. Beste bisita batzuk egiteko aukera ere izango da. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380an.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.J. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



'121 amu' KOSTALDEA EZAGUTZEKO' liburu

Maiatzak 10, larunbata
kartilla eta 1. kupoa
berriarekin



berriak 5 urte

Zatoz
gurekin ospatzera!

Eskualdez eskualdeko ekitaldiak

- BERRIAK 5 urte. Bidea
- Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
- Mokadua

TOLOSALDEAKO EKITALDIA

Maiatzak 14, asteazkena, 20:00etan
Tolosako Kultur etxean

berria
luzatu bostekoa

